

Gurra

Lauburuak ere, gurutzea izanik, gurpilaren itxura hartzen du.

Kosmosaren, historiaren eta biziaren etengabeko itzulera adierazten du gehienbat gurpilak; baina horren ardatza eta *zirkuluaren erdigunea markatzean, Jainkoaren egonkortasuna eta betiberatasuna adierazi nahi da.

Gurra

Ik. Agurra.

Gurtza

Ik. Gurtza(pena).

Gurtza pribatua

Elizaren liturgia edo halako erlijioikizun ofizialetik kanpo, edonolako *elizkizun edo *erlijioikizun informala edo bakarkako nahiz taldeko otoitz edo erlijiozko *errito da gurtza pribatua.

Ik. Gurtza publikoa.

Gurtza publikoa

Zuzenbide Kanonikoaren arabera, Eliz *liturgiaren bidez Jainkoari eskaintzen zaion *gurtzapena da. Hiru baldintza ezartzen ditu gurtza publikoa izateko: Elizaren izenean egitea; horretarako legez eskudunduta daudenek betetzea; Elizak berak ezarritako *erritok egikaritzea.

Ik. Gurtza pribatua.

Gurtza(pena)

Sin.: Kultua

Funtsean, gizakiak, Jainkoarekiko edo Horrekin lotura berezia duten izakienganako duen eraspenezko jarrera da. Gurtzaren modurik gorena da jaurespena edo *adorazioa.

Ondorioz, Jainkoari edo Hori ordezkatzeko duen edozein lagun nahiz gauzari eskaintzen zaion, agurrezko edo jaierazko *erlijioikizuna. Jainkoaren edo Horren ordezkatzaillearen nagusitasuna edo jauntasuna aitortzen da gurtzaren bidez.

Autore askok gurtza eta *magia elkarren kontra jartzen dituzte; magiak jainkozkoa erabili uste bai du eta horretaz baliatu nahi du gizakiaren interesetarako. Baina batzutan ez da erraza biak bereizten; batez ere gurtzaillearen barneko jarrerari begiratu beharrean, *erritoari begiratzen bazaio.

Era askotakoak izan ohi dira erlijiozko gurtzaren adierazgarriak. Nabarmena *oparia da, erlijio gehienetan nola edo hala agertzen dena. Gorputzezko edonolako jarrera, keinu, agur eta errito edo ohikune, gurtzaren adierazgarritzat erabiltzen da.

Hainbat modutako *otoitzetan adierazten du fededunak bere gurtzazko barne-jarrera; *botuak, zinitzak eta *zinopariak ere gurtzaren adierazgarriak izan daitezke; Idazteuna irakurtzea eta entzutea ere gurtza gisa egin ohi da sarritan. Jaiak eta bestelako ospakizunak ere gurtzaren helburua izan ohi dute erlijio-munduan.

Misterio-erritoak eta kristautasunaren *sakramentuak aurrenik gizakiaren *salbamen-erritoak dira, baina funtsean gurtzaren zentzua dute, fedezko sakramentuak diren eta salbamena Jainkoagandik datorrela aitortzen duten neurrian.

Gurtzapenaren bi maila bereizten ditu kristau-teologiak: a) Jaurespena edo *adorazioa (beronen esanahi sendoenean), latriazko gurtza esaten dena: Jainkoari bakar bakarrik dagokiona, goreneko ondra absolutuak berari bakarrik bait dagozkie; b) Ondra edo benedia, duliako gurtza esaten dena: zuzenean lagun edo gauza santuren bati zuzentzen zaiona, baina horien bidez Jainkoa bera helburu duena. Teologia katolikoak *hiperdulia jartzen du tartean: Ama Birjinari, Jesukristorekin izan zuen hurbiltasun bereziagatik eta Jainkoaren ama denez, eskaintzen zaion gurtza. Ik. Maria, Ama Birjina.

Kristau-teologiak gurtzapentzat hartzen du zintzoaren biziera osoa: Ebanjelioak berak hobesten du izpirituzko eta benetako gurtza erritokoaren aurrean.

Pribatua nahiz publikoa izan daiteke gurtza. Erlijio bakoitzean gutxi-asko xedatuta eta legeztatuta egoten da gurtza. Baina erlijio fenomenologian garrantzi handia dute fededun bakoitzaren, *oinarriko kristau-elkarteen, eta herriaren gurtza-formak, sormen handiz berak asmatu eta eratuak.

Gurtza publikoa zuzentzeko eta egikaritzeko beren arduradunak edo *ministroak eduki ohi dituzte, bai eta horretarako jauresleku edo gurtza-tokiak: *pagodak, *elizak, *sinagogak, etab.

Ik. Liturgia; Elizkizuna; Erlijioikizuna; Jainkozko ofizioa; Izadi-gurtza Euskal Herrian.

Paulo Agirrebaltzategi

Guru-a

Hinduismoko arimako maisua da. Horren ingurura biltzen dira ikasleak edo jarraikiak. Sarritan sakratutasunez hornitua dago, Jainkoaren eta gizakien bitarteko eta inoz Jainkoaren *haragiztapenetik sortua delako.